



Astekaria



elgoi



Agintaldi berri baten atarian

GAZTETASUNA ETA ESPERIENTZIA
ELGOIBARTARREN ZERBITZURA





San Frantzisko 21, behea
• ELGOIBAR • Tel: 74 26 52



Zatoz eta dasta ezazu kalitatearen zaporea.

Ardoak, kontserbak, txerrikiak, esparragoak, ogia, bolleria, gazta eta eztia, besteak beste.

Guztiak primerakoak!



elgoi**BARREN**

Nafarroa enparantza 2

☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

HIZKUNTZA ARDURADUNA:

Anjel Ugarteburu.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.

MAKETATZAILEAK:

Maiite Rementería,
Edu Sanz.

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz.

ADMINISTRAZIOA:

Josune Fernandez,
M. Angeles Ortoste.

KOLABORATZAILEAK:

Andres Alberdi, Esteban Antxustegi, Pello Arrieta, Felix Arrizabalaga, Belen Arrizabalaga, Mikel Artola, Mikel Cornejo, Izaskun Elizburu, Jon Etxabe, Jon Eugi, Koldo Galdona, Jose Mari Galdos, Ina Garagarza, Joseba Gorosabel, Lorea Gorostiaga, Xabier Gorriti, Ana Igartua, Maite Iriondo, KOKOE, Joseba Konde, Edurne Kortia, Imanol Larrañaga, Antonio Matias, Susana Mujika, Maite Solozabal, Karmelo Urdangarin, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA:

3.500 ale

LEGE GORDAILUA:

SS-1.038/92

ISSN:

1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere

gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta

iritzien erantzunkizunik.



Ez dakit nere gustuarekin bat etorriko zareten baina nik **BARREN**en gehien apreziatzen dudan orria erretratu zaharrena da... beharbada irudiak letrak baino errezagokoak direlako edo. Atsegina da oso, argazki zahar horretan agertzen diren elgoibartarren aurpegiak eta itxurak ikustea. Esan beharrik ez dagoen zuri-beltzeko argazkien xarmagatik eta, berau gutxi izango balitz, argazkian azaltzen direnak ezagutu eta asmatzeko plazerragatik, edota, atera zireneko sasoi guregan, une batzuetan bada ere, berpiztegitik. Benetako eskerrak eman nahi dizkizuet astetik astera zuen etxeko intimidade apurtxo hori zabaltzen duzuenoi. Argazkiekin egiten den bezala, nik ere artikulua idazterakoan atzera jo dut eta orain hogeita hamar urte, 1965ean hain zuzen, “La voz de España” egunkarian sasoi hartako korrespontsalak idazten zituen Elgoibarko kartak irakurtzen aritu naiz (inork horrelako kontsultaren bat


egin nahi izango balu, Donostiako Koldo Mitxelena zentroan aurki dezake, hemeroteca atalean, inongo eragozpenik gabe, karneta besterik ez da behar eta). Karta haiek bazituzten zenbait atal finko: jaiotzak, (“natalicis”), ezkontzak (“nuevo hogar”), hiletak (“luctuosas”), parrokiako gorabeherak (“vida parroquial”) etab... Konparatzeko tentazioa beti egoten da, baina azokako berriek erakarri ninduten batez ere:

“Ayer jueves..., asteroko merkatua ospatu zen eta honako prezioak erabili ziren: letxuga, 2 pezetan bakoitza, idarrak 12 pezetan kiloa, bainak 12 pezetan kiloa, tomatea 20 pezetan kiloa eta naranjak 10 pezetan kiloa”. 56 pezeta guztira.

Hau da, 20 duroarekin azokara joan, goiko guztia erosi eta ia diru erdiarekin itzuli etxera. Ez zen lan gutxi egin beharko orduko hogei duroko bat irabazteko!!

Joseba Konde

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





Aste honetako erretratua **Felix Ansola** “Txanbolin”ek lagatakoa da. Erretratua benetan zaharra da, **1925**ekoa. Felixek esan digunez, erretratuan azaltzen direnak **LAGUN-ONAK** orfeoia-oren orkestina osatzen zutenak dira. Jakin dugunez orkestina honek Abdon Gabilondonean zeukan lokala eta hantxe jotzen zuten batez ere. Lagun-Onak orfeoia 1925. urtean sortu eta sei urte inguru iraun zituen. Elgoibarren bakarrik jotzen zutela ere jakin dugu, ihauterietan

euren partehartzea izaten zelarik.

Erretratuan azaltzen direnak, tente ezkerretik hasita: **Felix Ansola (tronboia)**, **Luziano Cordero (♣) (saxofoia)**, **Juanita Zubizarreta (♣) (pianista)**, **Isaak Azpiazu (♣) (saxofoia)** eta **Sebastian Epelde (♣) (saxofoia)**.

Eserita: **Juan Salaberria (♣) (tronpeta)**, **Jose M. Etxaniz (♣) (biolina)**, **Juanito Etxaniz (biolina)** eta **Luis Etxaniz (klarinetea)**.

Atzeko aldeko kuadroan azaltzen dena **Angel Arriaga Ina** da, Lagun-Onak orfeoiko presidentea.

gure hitza
ELGOIBAR



Udaletxea, herritarren etxea

Igandean Udaletxerako agintari berriak hautatuko ditugu. Lau urtetik behin berritzen da herritar guztiak ordezkatzeko gaituztenen zerrenda. Alkatea eta 16 zinegotzi dagozko Elgoibarri, eta jakina denez, beraien funtzioak betetzeko lekua Udaletxea da. Definizioz, herria, auzoak eta honek hartzen dituen lurraldeen gestiorako erakundea da Udaletxea. Herritarren zerbitzura dagoena eta herriari eragiten dioten erabakiak hartzen direneko lekua litzateke. Akaso herritar guztiak Udaletxearengandik hurbil sentitzea oso zaila izan daiteke. Askok Udaletxea kanpotik baino ez dute ezagutzen, erakunde arrotza da beraiantzat, eta ezer gutxi dakite haren funtzionamenduaz. Zaila bada ere, hona hemen Udaletxearen funtzionamenduari eta historiari buruzko zenbait argibide.

Udaletxean alkatea da gorengo agintaria. Lau urtetik behin aukeratzen da, zinegotzi guztiak bezala. Hauxe gain, alkatearen azpitik daude gobernu batzordea, plenoa, batzorde informatiboak eta Udaletxekeko langile guztiak.

Alkateak hainbat betebeharrak eta kompetentzia ditu, besteak beste, dekretuak egin, plenoak deitu eta Gobernu Batzordeko lehendakaritza eraman.

Gobernu Batzordea

Alkateak Gobernu Batzordearen konposaketa aukeratzen du; sei kide

izan ohi dira, normalki alkatearen alderdi berekoak. Astelehenero biltzen dira eta bere funtzioa alkateari aholkuak ematea litzateke. Bertan hartzen dira batzorde informatiboen proposatutako gaien inguruko erabaki gehientsuenak. Legearen arabera,

gai batzuek alkateak berak gestionatzen ditu, beste batzuek gobernu batzordeari dagozko eta beste batzuei buruzko erabakiak Udalbatzarrak edo plenoak hartzen ditu.

Batzordeak

Sail bakoitzak bere batzordea dauka, sei dira guztira. Zinegotzi batek batzorde informatibo baten lehendakaritza izaten du eta batzordeen zeregina da gaiak aztertu eta hauen inguruan proposamenak egitea. Gai hauek zuzenean plenoan edo gobernu batzordean eztabaidatzen dira eta erabakiak hartzen.

Plenoak


Erabakiak hartzeko beste gune bat dira plenoak. Alkateak deitutakoak

izaten dira eta ohizkoak hiru hilabetetik behin egiten dira. Ohizkoak ezezik, apartekoak edo ez ohizkoak ere daude. Udalbatzarra burutu ahal izateko gutxieneko zinegotzi kopuru bat behar da, kopuru osoaren heren bat gutxienez. Alkatea present egon behar da beti eta idazkariak guztiaren akta jasotzen du. Udalbatzarrean eztabaidatuko diren gaiak, hauen ordena, interbentzio errondak e.a. ere alkatearen esku daude.

Bestelako zerbitzuak

Aipatutako sailez gain, Udaletxean beste zerbitzu eta funtzio mordo burutzen dira. Denak zehaztea ezinezkoa denez, hona hemen labur-labur Udalaren menpe dauden edo bertatik gestionatzen diren bestelako zerbitzu batzuk: Udaltzaingoa, Liburutegia, Udal Artxi-boa, Idazkaritza, kontsumo bulegoa, drogompenpe-

Nola hartzen dira erabakiak Udalean?



UDALETXEARI BURUZKO ZENBAIT DATU:

- 1995rako aurrekontua: 1.108 milioi
- Zinegotzi kopurua: 17
- Langile kopurua: 51
- Harrera ordutegia: goizez 11etatik 1era
- Elgoibarko biztanle kopurua: 11.204



kotasunen prebentziorako zerbitzua, Musika Fundazioa, azokaren gestioa, Deba Beheko Mendi eta Nezakaritza, erregistro, zergen bilketa, ...

Herritarrek edozein eskabide edo kexa heleraz dezakete Udaletxera. Idazkaritzan edota Udaltzaingoan jasotzen diren eskabide hauek erregistro bate-

an geratzen dira eta gero, dagokion sailera banatzen dira, han ahal den neurrian irtenbide bat emateko.

Udaletxearen inguruan historia apur bat

1728ko maiatzaren 22an Felipe V.ak baimena eman zuen Elgoibarren Udaletxea eraikitzeko. Horretarako D. Simon de Muguruzaren jabetzako lurak erabili ziren. Nor izan zen eraikinaren egilea ez dago inongo dokumentutan jasota baina estilo aldetik Churriguereskoa dela diote zenbait dokumentuk. XVIII. mendeko eraikuntza barroko hau San Bartolome eliza, frontoia, eta arkupeak zituen etxeek osatzen zuten Kalegoen Plazan eraiki zen, herri guztietan ohitura zen bezala. Antonio



■ ■ 1979. Transizioa eta gero, lehen Udaletxe demokratikoa izan zen Luis Arrieta alkate zelarik.

Alkateen zerrenda

Isidoro Garagarza (1099-1901)
 Manuel Quintana (1902-1902)
 Pedro Maria Arrillaga (1904-1905)
 Migel Unzueta (1905-1909)
 Mariano Muguruza (1909-1910)
 Gerardo Uribe (1910-1911)
 Juan Aizpiri (1912-1913)
 Pedro M. Arrillaga (1914)
 Manuel Quintana (1914-1915)
 Teodoro Alkorta (1916-1917)
 Antonio Arrillaga (1918-1920)
 Angel Arriaga (1920-1922)
 Epifanio Atxaga (1922-1923)
 Juan Mujika (1923)
 Agustin Arrizabalaga (1923-1924)
 Antonio Arrillaga (1924-1930)
 Nazario Osoro (1930-1931)
 Jose R. Balanzategi (1931-1934)
 Luis Etxaniz (1934-1936)
 Jose R. Balanzategi (1936)
 Manuel Quintana (1936)
 Francisco J. Amuskotegi (1936-1939)
 Castor Arriola (1939-1940)
 Teodoro Alkorta (1940-1943)
 Julio Mugerza (1943-1949)
 Jose Rezola (1949-1958)
 Angel Ajubita (1958-1974)
 Jaime Arrese (1974-1977)
 Angel Fdez. de Jauregi (1977-79)
 Luis Arrieta (1979-1983)
 Lucio Beitia (1983-1987)
 J. Ignacio Elkoro-Irribere (1987-1995)



Jaime Arrese
(1974-1977)



Angel Fdez. de Jauregi
(1977-79)



Luis Arrieta
(1979-1983)



Lucio Beitia
(1983-1987)



J. Ignacio Elkoro-Irribere
(1987-1995)

Larraza izan zen harrobi maisua. 1737. urte aldera eman zen amaitutzat Udaletxea. Lehen alkatea 1294. urtean izan zuen Elgoibarrek. Juan Lopez de Gamboa izan zen, Olasoko abate zena.

Armarria

Errege Katolikoek armari bat eman zioten Elgoibarko herriari 1498an, Udaletxean gaur egun dagoen berbera. Bertan gaztelu bat agertzen da, baita Olasotik harturiko hiru bihotz ere, Ganboatarren ikurra zena. Armarria bi lehoik, munstro-buru batek eta

kasko batek eusten dute. Guztia landarez eta bestelako elementu bejetalez aberastua dago eta gerra garaiko ekintzak gogorarazten duten bi kanoiz ere bai.

Kultur Ondasun izendapena

1964ko urtarrilaren 17an, Hezkuntza Ministerioaren aginduz, monumentu historiko-artistiko izendatu zen Udaletxea. Gaur egun Udaletxeko arkupeetan plaka bat dago jarrita, Kultur Ondasun kalifikatuaren maila duela adierazten duena.



■ ■ Primo De Riveraren diktadura garaian (1924-1927) argazkiko gizon hauek osatzen zuten Udaletxeko Batzorde iraunkorra: Ezkerretik hasita, Antonio Peciña Ibarrolaburu idazkaria, Teodoro Alkorta Arostegi eta, Manuel Quintana Basterra, alkateordea. Eserita dagoen Antonio Arrillaga Arriola zen alkatea.

Zer eskatuko zenioke alkate berriari?



ANTXON GURRUTXAGA
26 urte, kortadorea

Gaztiak elkartzeko eta euren aktibitatiak desarrolatzeko tokixak jartzia eta herrixan bertan gune berde gehixao ipintzia.




AITOR CRESPO
13 urte, ikaslea

Gaztetxe bat ipintzeko eta bideo makinekin ibiltzeko leku bat. Horrez gain Udaletxeko balkoitik golosinak botatzia ere gustatuko jatan.



NIEVES PRADO
41 urte, administraia

Batez ere zintzoa izan dadila eta lan arloa landu dezala. Lanpostu asko galtzen ari dira eta horrek herrian bertan eragiten du eta Euskadira pobrezia dakar.



F. JAVIER PENALBA
54 urte, torneroa

Herriko kontuak ondo eta garbitxasunakin eruateko. Gaztientzako dantzarako lekuren bat eta zapatu arratsaldietako zikinak ebitatzeko zeozer eitxia.



ANA ETXEBERRIA
29 urte, abokatu

Herrixagatik gehixao preokupatzeko partiduatik baino. Gaztiak egoteko leku bat jartzia eta euskararen alde lan eitxia eskatuko nion.



M. ASUN GALVAN
47 urte, etxeandrea

Lana dago gaizki, hori konpontzerik balego... Azkenaldian gauza asko egin dira herrian eta egoera ikusita ezin daiteke gehiagorik eskatu.



**Jose Antonio
Gorostiza
"Watson"**

LEHEN URTEURRENA



Urteurreneko elizkizuna bihar LARUNBATA, hilak 27, izango da SAN BARTOLOME parrokiaren ARRATSALDEKO ZAZPIETAN. Bere gurasoek, Juanito Gorostizak eta Consuelo Otaegik, Agurtzane Gorostiza arrebak eta bere andregaiak aurrez eskerrak eman nahi dizkizue bertan izango zareten guztioi.

■ Gazte txartelarekin, ikuskizunak merkeago

Herriko Antzokian burutzen diren zenbait kultur ikuskizunetan Gazte Txartela erabiltzeko aukera izango dute 15 eta 25 urte bitarteko gazteek Udal Kultur Zerbitzuaren erabakiz. Adin horretako neska-mutilei Gazte Txartelaren beherapena egingo zaie antzerki, dantza eta antzerako ikuskizunetan. 350 ptako sarrera ordaindu beharrean 200 ptako sarrera erosi ahal izango dute, baina zine komertzialean 350 ptako sarrera mantenduko da guztiontzat. Ikasturte berritik aurrera, Euskal Aurrezki Kutxekin izenpetutako hitzarmenari esker Gazte Txartelarekin 6000 sareari lotutako txartela izango da. Honek esan nahi du Gazte Txartelaren jabeak edozein ordainketa egin ahal izango duela Kutxako txartela izango bailitz. Aurrerantzean txartel berria egiteko aurrezki kutxetara jo beharko da, eta ez orain arte bezala, Udal Kultur Zerbitzura.

■ Bi Tanborrada egongo dira aurten Trinitatetan

Aurtengo Trinitate jaietan bi Tanborrada izango dira. Haurren ohizko saioaz gain, nagusiena ere izango da. Musika Bandak bi tanborradetan jotzerik ez duenez, haurren tanborrada ekainaren 4ean izango da eta nagusiena ekainaren 10ean, Trinitate bezpera egunean. Haurren emanaldia eguerdiko 12etan hasiko da Plaza Handitik eta nagusiena, berriz, gaueko 11etatik aurrera.

■ Andraize Emakume Taldearen zuzenbidea

Andraize Emakume Taldeak ezagutzera eman nahi du edozein eskaera, iradokizun, ideia edota bestelako proposamen bidaltzeko honako posta kutxara bidal daitezkeela mezuak: Andraize, Posta Kutxa zenbakia 168.

Udaletxeak SIGMAko langileek aurkezturiko mozioa onartu zuen

Joan den ostegunean pleno berezia izan zen Udaletxean Legaldi honetan izan den azken plenoa. Lehenik eta behin kredituen egokipen espedienteaz eztabaidatu zen eta 21.134.736 pezetako kreditua onartu zen HBren aurkako botuak jaso arren. Hurrengo puntua kredituen aldaketen espedienteari buruzkoa izan zen 16.661.489 pezetatan onartuz. Lerun Txiki-Morterika proiektuaren bueltan bi puntu gaineratzea proposatu zen; alde batetik, lurren espropiazioa eta bestetik, proiektua jendearen aurrean 15 egunez erakustea. HB proiektuaren aurka azaldu zen inpakto ambientalaren ikerketarik ez dela eginez esanez, Javi Agirrerren hitzetan, “legez proiektuak ingurugiroarentzat suposa dezakeen erasoari buruzko azterketa egin behar da. Gainera, DOTak proiektua ez egitea aholkatzen du”. Bozketan alderdi guztien aldeko botua jaso zuen, HBrenak ezik. San Migel errekaostaren inguruan, 1994ko urriaren 27an onartu zen aurrekontuaren BEZA aldatu egin dela eta guztira 440.775.791 pezetan zehaztua geratu

zen. Kopuru horretatik Diputazioak 330.581.843 pezetako dirulagutza emango du gainontzekoa Udaletxearen esku geratuz. HBk azaldu zuenez, “proiektuarekin ados gaude baina gure ustez gune ruralerako egin den plangintza ez da erreala eta berplanteatu egin behar da”. Puntu hau onartu egin zen HBren aurkako botuekin. Pleno bereziari amaiera eman eta premiazko plenoa konbokatutako mozio bat eztabaidatzeko. Sigmak Industria Sailari ondare inbiliaria erostea eskatzen dio. Honela, alde batetik langileei dagokien indemnizazioa ordainduko litzaieke, Eusko Jaurlaritzak Sigmari abal bezala utzi zizkion 900 milioiak berreskuratuko lituzke eta pabilioien garapen azkarrago bat suposatuko lukeen Sigmatik sortuko diren hiru proiektuak aurrera eramanez. Sigmako langileek mozioa aurkeztu zuten Udaletxeak beraie babesa eman diezaien. Mozioa aho batez onartu zen.



Pilar ikastetxeko Euskara Batzordeak ikasleentzat antolatutako abesti lehiaketaren aurkezteko argazkia da honako hau. Bertan ikastetxeko ikasle guztiak hartu zuten parte, beraiek sortutako letra eta musikarekin. Gela bakoitzeko haurrek koreografiak prestatu zituzten eta irabazleentzat saririk ere egon zen.

“Traspasos” dantza taldea Herriko Antzokian



Traspasos dantza talde gasteiztarren “Sombrisas” lana ikusteko aukera izango da datorren ostiralean, ekainak 2, Herriko Antzokian Udalak eta Musika eta Dantza Fundazioak antolatuta. Gaur egungo gizartean zoriontsu izateari buruzko eta zoramenaren inguruko hausnarketa eskaintzen du konpainia gasteiztar honen azken lanak. Mikel Gomez de

Segura da zuzendaria eta dantzariak Silvia Liger, Virginia Garcia, Maien Boix eta Ania Aldama dira. Argiztapenaren arduraduna Javi Ulla da, F.J. Larreinak egin du eskenografiaren diseinua, eta jantziak Ima Fernandezak dira. Saioa gaueko 22,30etan hasiko da. Sarreraren zenbatekoa 350 ptakoa da nagusientzat eta 200 haurrentzat eta Gazte Txarteldunentzat.



PNVko, HBko eta EAko alkategaien mahainguruak jakinmin handia sortu zuen herritarrengan. Elgoibarko Izarrak antolatutako ekitaldian Kultur Etxeko hitzaldi gela inoiz ez bezala ageri zen, bete-betea. Guillermo Garatek, Pedro Mendizabalek eta Ales Arrietak bi ordu luzez datozen lau urteotarako asmoen berri eman zuten, euskara, kultura eta kirola, finantzaketa, etxebizitzak, gazteriaren arazoa... eta beste gai asko ikutu zituztelarik. Joxe Mari Isasti kazetariak moderatutako mahainguruaren bukaeran entzuleek galderak egin zizkieten hizlariari.

■ OHokoentzako antzerkia

Eibarko J.A. Mogel Ikastolako 8. mailako antzerki taldeak “Behin batean Ju ju ju” lana antzeztuko du Herriko Antzokian OHoko ikasleentzat. Eusko Jaurlaritzako antzerkigintza kanpainaren eta Eibarko Unibertsitate Laboraleko eskolarteko topateken barne, asmoa haurren antzerkia haurrei erakustea da, antzoki batek eskaintzen dituen aukera ezberdin guztiekin. Zuzendaritza lanetan Xabier Ansola elgoibartarra, Ikastolako plastika irakaslea eta *Ekekei* antzerki taldeko kidea da. Saioa ekainaren leian izango da arratsaldeko 15,30etan.

■ IVEFean sartzeko frogen informazioa

IVEFen hezkuntza fisikoko ikasketak burutzeko izen-emate orria, ikasketa plana eta bestelako informazioa Udaltzako Kirol Zerbitzuan eskura daiteke. UBI ikasten dihardutenek Kirol Zerbitzutik pasatu edo 74 44 15 zenbakira dei dezakete. Azterketak ekainaren bukaera aldera izango dira.

■ Jabier Oñederra izango da sarjento berria

Udaltzaingoko sarjento berria izendatu dute Jabier Oñederra “Garro”, orain arte Udaltzaingoko kaboia izan dena. Ekainaren 1etik aurrera hasiko da sarjento lanetan eta bere asmoen artean Udaltzaingoa eta herritarren arteko harremanak hobetzea legoke, “dena hobetu bait daiteke beti. Era berean, Udaltzaingoa herritarrengandik hurbilago dagoen zerbait izatea nahiko nuke eta ahal baldin bada hori lortzeko gogor arituko naiz” adierazi digu izendatu berriak. Jabier Oñederra “Garro”k 38 urte ditu, 14 urte daramatza Udaltzaingoa, eta horietatik 11 urte kabo bezala.

■ Ikastolako haurrak ETBn agertuko dira

San Bartolome Ikastolako haurrak ETB1eko “Baietz Barrez Lehertu” saioan parte hartu zuten eta osteguneko emankizunaren ostean, igandean berriro errepikatuko dute. Beraz, ikusi ez dutenek igande honetan arratsaldeko 3ak 5 gutxitan ikusi ahal izango dute programa.

Joxepa Ugarteburu:

"Ikastera etortzen dianez, zuzentasunez jokatu behar da"

Joxepa Ugarteburu duela 66 urte Aubixa baserrian jaio zen. 38 urte zituenean Elgoibarrera etorri zen bizitzera baina denbora gutxirako. Aubixa, ikastolako udalekua izan zen hamar urtetan eta bertan

jardun zuen fin lanean. Orain garaiak aldatu diren bezala, Aubixaren funtzioa ere aldatu egin da. Euskararen mintzapraktika egiteko erabiltzen baita Aubixa beste gauza askoren artean.

- **Aubixa noiz eta nola bihurtu zen udaleku?**

- Gu kalera jun ginanian Aubixa hutsik geratu zan eta errenteruak sartu zian, Elgoibarko Izarrakuak. Gero, auzolan moduan etxia arreglau zaben eta horrela hasi ginan Ikastolako umiekin udaleku bezela funtzionatzen.

- **Zer oroitzapen dituzu orduko sasoikoak?**

- Orokorrian oso esperientzia ona izan zan, asko ikasi bait naban eta oroitzapen ona daukat ume eta maixuez.

- **Zer dela eta berriz lanean?**

- Martxan jarri ginan berriz. Etxia erdi jantzita zauan eta obreei ekin genienian aukera izan genuen bernetegi bezela irekitzeko Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin.

- **Zein da Aubixaren helburua?**

- Helburua euske-



"Kalian ondo pasatzen naban baina luzero joaten jatan eguna"

ria sakontzia da. Eta horretarako guk etxia eta ingurua eskaintzen diegu gerturatzen diren guztiei.

- **Zer funtzionamendu dauka?**

- Astian zihar Eusko Jaurlaritzaren bitartez bidalitako umiak egoten dira euskera lantzen, beraz,

barnetegi bezela. Eta aste bukaeretan, berriz, jatatxe bezela eta aste bukaeria bertan pasatu nahi dutenak etortzen dira.

- **Nondik norako jendea etortzen da?**

- Batez ere Bilbo Zaharrekuak. Bueno, eta bestelako ekintzak egitera ere etortzen

dira adibidez Medizina Txinako taldiak eta Yogakuak euron ekitaldiak egitera. Adinari dagokionez denetarik.

- **Zein da zure lana?**

- Sukaldarixari laguntzia edota bestelako gauzetan laguntzia da. Zeren eta hemen beti dao zerbait egiteko.

- **Non zaude gusturago, oraingo ala lehenago Aubixan?**

- Bixetan. Baina desberdina da. Lehen helburua haurrak ondo pasatzia zan, orain aldiz, ikastera etortzen dira eta zuzentasunez jokatu behar da.

- **Kalean ala Aubixan?**

- Kalian ondo pasatzen naban baina luzero juten jaten eguna, nahiz eta egunero jun San Lorentzora. Hemen, berriz, segitxuan pasatzen jat eguna.

MAITE IRIONDO

Hautagaien proposamenak aztergai


Udal hauteskundeetan atarian gaude-nez, zerrenda buruez eta hauek eskaintzen digutenaz zerbait gehiago jakin nahi izan dugu. Maiatzaren 28tik aurrera ondoko hauek izango dira beraien proiektuak aurrera eramaten saiatuko direnak. Aurten gainera, lehen aldiz alderdi independente bat aurkeztu da, Mendaroko Talde Independentea.



NURIA ANSUATEGI
EAKo alkategaia

Adina: 29 urte
Lanbidea: Klinika laguntzailea
Zaletasun bat: Zinea

PROGRAMAREN LEHENTASUNAK:
"Gure lema 'benetako herri bat eraiki dezagun' da. Udaletxea eta herria elkartu nahi ditugu, herritarren partehartzearekin, denon artean eraiki dezagun herria, Udaletxea gauza berezietarako toki bat bezala utzi gabe."



MTI
Mendaroko Talde Independentea hama-bi pertsonaz osatua dago eta talde bezala funtzionatzen dutenez, beraien hitzetan "ez du zentzurik bakarra agertzeak".

PROGRAMAREN LEHENTASUNAK:
"Alderdi politikoen menpe egon gabe, herriaren eskakizunen arabera bideratuko ditugu proiektuak. Erabaki bat hartzeko gai bati buruz erreferendum-a egin behar bada, egingo da".



ANTON ZUBIAURRE
EAJ/PNVko alkategaia
Adina: 41 urte
Lanbidea: Danobateko langilea
Zaletasun bat: Kirola

PROGRAMAREN LEHENTASUNAK:
"Kultura, hezkuntza eta kirolari dagokionean helduentzako hezkuntza ikastaroak, kirola praktikatzeko guneak eta gazteen langabeziari aurre egiteko proiektuak bideratzea. Hirigintzan uholdeen aurkako proiektuaren bigarren fasea, Azpilgoetako kanposantua eta Udaletxea eraikitzea. Euskarari, berriz, udaletxeko langileak euskalduntzea, euskal giroa sortzea olerki, ipuin eta bertso lehiaketak bultzatuz eta helduak euskalduntzeko ikastaroak bideratzea".



ARANTXA EGANA
HBko alkategaia
Adina: 23 urte
Lanbidea: Langabetua
Zaletasun bat: Antzerkia

PROGRAMAREN LEHENTASUNAK:
"Udal irekiagoa eta partehartzaileago bat bultzatzea Mendaron, informazio gehiago eskainiko duena. Kulturari, euskarari eta gazteriari garrantzia emango dion Udaletxea sortu, batez ere gazteriari, orain arte arlo honi ez baitzaio inportantziarik eman. Lokalaren arazoarekin gertatzen ari dena, adibidez, barregarria da. Gainera azken urteotan hirigintzari garrantzi gehiago eman zaio kultura alde batera utziz".



ANGEL LOIDI
PSE/EEko alkategaia
Adina: 36 urte
Lanbidea: Segurtasun zaindaria
Zaletasun bat: Mendia eta perretxikuak hartzea

PROGRAMAREN LEHENTASUNAK:
"Ni hautagai bezala aurkeztu naiz Mendaron nire alderdiari botua ematen dion jendea ezagutu, talde bezala elkartu eta urte batzuetara Mendaroko jendea izan dadin zerrendan agertzen dena. Gure helburua lana bultzatzea da, batez ere, gazteen artean eta eratuta dauden elkartei laguntza ematea ekintzak egin ditzaten".



Mendaroko IV. Pilota Txapelketa

IV. Pilota Txapelketako finalak jokatu dira Goñati pilotalekuan. Ekainaren 17an, gaueko 10etan infantilen finalak jokatu dira palaz eta ekainaren 18an eskuzko finalak, eguerdiko 12etatik aurrera. Nagusiei dagokienean, ekainaren 28an palazko finalurrekoak izango dira arratsaldeko 7etan. Finalak, berriz, uztailearen 1ean palaz, gaueko 10,30etatik aurrera eta uztailearen 2an eskuz eguerdiko 12,30etan.

Umeen Euskal Jaia ekainean izango da

Ekainaren 25ean Euskal Jaia ospatuko da *Mendaroko Gazteak* dantza taldeak antolatua. Bertan Mutrikuko, Azkoitiko, Errenteriko eta Mendaroko dantzariak hartuko dute parte, 200 guztira. Goizeko 10,30etan bilduko dira talde guztiak Goñati pilotalekuan eta ondoren hamaiketako egingo dute. Kalejiraren ostean, eguerdiko 1ean, talde bakoitzak bere dantzak eskainiko ditu Goñatin eta ondoren bazkaria izango da. Arratsaldeko 5,30etan izango da alardea eta jaiari amaiera emateko, erromeria. Antolatzaileek herritarren laguntza eskatzen dute eta norbaitek bere etxean dantzariak jaso nahi baditu, Leku Onan, Sasterrian eta Zulaika Anaiak dendan eman beharko dute izena ekainaren 10a baino lehen.


Trinitate jaiak Mendaron

Ekainaren 10ean hasi eta 12ra bitartean Trinitate jaiak ospatuko dira Mendaron. Hona hemen egitaraua: larunbatean, ekainak 10, emango zaie hasera festei arratsaldeko 3etan. Ekainaren 11n, igandea, goizeko 9etan kalejira izango da txistulariekin. 11etan meza eta ondoren txistulariak eta Ospas eta Sabin trikitilariak. Eguerdiko 12,30etan herri kirolak izango dira. Ekainaren 12an Ikastolako haurren bertso saioa izango da eta ondoren hamaiketako Laja eta Landakanda trikitilariak. Iluntzeko 7etan urteroko makalau jana egingo da Aizpen eta gaueko 10,30etan, jai amaiera emateko, erromeria Trinitate Laja eta Landakandaren eskutik.



San Jose Ikastolako areto futbol taldea Gipuzkoako txapeldun ordea

San Jose Ikastolako 5. eta 6. mailako ikasleek, eskolarteko txapelketaren barruan, Gipuzkoako kopako finala jokatu zuten joan den larunbatean. Donostiako Luis Gaska kiroldegian jokatu zuten partiduan 8-4 galdu zuten Tolosako Laskurain ikastolako aurka. Hala eta guztiz, zorionik beroenak Gipuzkoako gure txapeldun ordee!



Edergintza


- *Aurpegi tratamenduak*
- *Gorputz tratamenduak*
- *Masaia*
- *Sauna*
- *Solariuma*

San Frantzisko, 49 - 1 esk. Tel. 74 43 03



ILEAPAINDEGIA
EDERGINTZA

San Roke 6 behea tel. 74 34 91



PROTAGONISTAK



Hilabete honetako argazkia **Antonia Longartek** laga digu. Berak esan digunez, 1957ko ekainaren 2an ateratakoa da eta bertan neska lagun talde bat azaltzen da. Dirudienez neska horietako baten despedida ospatzen zuten bere ezkontza zela eta. Argazkia Elgoibarko Urasandi auzoan ateratakoa ei da. Hauxek dira erretratuan agertzen direnak: Ezkerretik hasita: **Juanita Urain**, "Zabale" baserriko

lagun bat, **Maria Luisa Etxabe** "Eskapaixo" familiakoa, **Mari Tere Barrenetxea**, **Maria Luisa Etxaberen** ahizpa, **Mari Tere Larrañaga**, **Miren Arrieta** eta **Nati Arrillaga**.

Behean, ezkerretik hasita: **Maria Angeles Urain**, **Juanita Vives**, **Exaniz**, **Juanita Urain** ezkongaiia, **Jesusa Urain**, **Maria Isabel Urain**, **Martina Mendikute**, **Pepita Goena** eta **Antonia Longarte**.

3

Arrate Loiola San Jose ikastolako eskolaurreko andereñoa



- **Ume txikiak ala nagusiak?** ■ Txikiak. Ume txikiak jasotzeaz gain, eman ere, asko ematen dute, askoz afektiboagoak dira.
- **Pazientzia ala garraisiak?** ■ Pazientzia, umeak trankil hartu behar dira.
- **Bestelako afiziorik?** ■ Irakurtzea gehienbat. Bestela eskiatzea, hondartza...
- **Ama izatea eta lana nola bateratzen dira?** ■ Antolatuz. Dena ondo antolatu behar duzu eta beste norbaiten laguntzarekin, noski.
- **Eszedentzia egon beharko litzateke?** ■ Bai horixe, pare bat urterako behintzat, umeak hazi bitartean.
- **Lehen go mojen heziketa ala oraingoa?** ■ Oraingoa, eskolaurrean behintzat desberdintasuna dago.
- **Ikastola berria ala zaharra?** ■ Berria, instalakuntzak primeran daude.
- **Pribatua ala publikoa?** ■ Posibilitatea edukiz gero pribatua baina Mendaron ez zegoen aukerarik eta publikoa.
- **Nor gustatuko litzazuke hezitzea?** ■ Ume bereziren bat, bere aurrerapenak izugarri poztuko nindukeelako.

Sevilla-Gipuzkoa: Oroimenerako interkanbioa

Elgoibarko IMHk Sevillako ikastetxe batekin egindako interkanbioari esker, Sevillako zenbait ikasle egon dira Elgoibarren eta Mendaron astebetez. Hauetariko hiru Mendaron izan dira eta horietako birekin izateko parada atseginan izan dugu. Berezkoa duten umore onari esker barre eta algara artean egin genuen Jose Ramon Conejo eta Jose Antonio Bayorterekin hurrengo elkarriketa.

- Iritsi eta zerk harritu zintuzte gehien?

Jose Antonio: Bereziki paisaiak eta eguraldiak.

Jose Ramon: IMHn egin ziguten harrerak, ikasle guztien gurasoak zeuden eta oso ondo portatu ziren gurekin.

- Zer egin duzue aste honetan?

- Goizez enpresak bisitatu ditugu: Danobat, CAF... Hemengo enpresetan nola lan egiten den eta zein teknologia erabiltzen den ikusi dugu. Arratsaldeetan inguruko herriak ikusi ditugu: Donostia, Gernika, Ipar Euskal Herriko zenbait toki, Santimamiñeko kobak, Loiola...

- Zein desberdintasun nagusi daude Sevillaren eta Euskal Herriaren artean?



- Janaria, jendea, kultura eta bizi maila altuagoak dira hemen.

J.Ramon: Niri janaria asko gustatu zait, batez ere pintxoak. Sevillan ez dago horrelakorik, han tapak jaten dira. Gernikan izan ginenean hamabi pintxo jan nituen. Hemen afaria han baino ugariagoa da.

J.Antonio: Sevillan ez dago sagardotegirik eta joan den igandean hoietako batean egoteko aukera izan genuen. Sevillan ez dugu sagardorik edaten eta guretzat ahaztu ezineko esperientzia izan da. Sevillan, berriz, egunero joan zaitezke juergara hemen, aldiz, asteburuan bakarrik.

- Jendeari dagokionean, zer?

- Euskal Herrian jendea itxiagoa da eta taldetan biltzen da gehiago. Andaluzian gau batean edozeinekin irten zaitezke, ez zure koadrilarekin bakarrik.

- Anekdotarik?

- Donibane Lohitzunen kantzontzilotan bainatu ginen eta lagunek erropak paseoraino eraman zizkigutenez, kantzontzilotan joan ginen hondartzatik paseora.

- Zer nolako esperientzia iruditu zaizue?

- Ahaztu ezinezko esperientzia da eta udan etortzeko intentzioa dugu. Ikasteaz gain jendea ezagutzen da eta beste giro batean bizitzeko aukera izan dugu.

4



Metabo erraminta elektrikoaren eskualdeko banatzailea

SUMINISTRO INDUSTRIALAK

■ MOZKETARAKO ERRAMINTAK

■ BABES MATERIALEA

■ RODAMIENTOAK

■ LANPARA INDUSTRIALAK

Santa Klara kalea, 24 Tel/Faxa: 74 10 97 • ELGOIBAR •

Elena Zuazubizkar

Elena ileapaindegikoa

● **Beste ileapaindegi batera joan zinen azken aldia?**

▶ Nahikoa denbora izango da, urtebete pasa. Nerekin lan itxen dabanak itxen dia normalian.

● **Zer da zure lanetik gehien atsegin duzuna?**

▶ Koloria eman eta ilea moztu.

● **Gehien gorrotu duzuna?** ▶ Ile

beltz bat argitzea. Lan zaila da, nahiko pringaua.

● **Eta zeuri egitea atsegin ez duzuna?**

▶ Ez daukat gauza konkreturik. Nire izaerarekin ez dixen zeozer.

● **Animaliarik orraztu izan duzu inoiz?**

▶ Ez. Nere txakurrari ilea moztu, baina bestela ez.

● **Zein da zuretzat ile kolorerik bitxiena?**

▶ Gaur egun hainbeste erabiltzen dia... Rosa edo naranja argiak.

● **Burukoaz gain, gorputzeko beste ilerik tindatu duzu?**

▶ Ez, ez. Egunen baten ingo deu hori ere bai...

● **Egin duzun orrazkerarik bereziena?**

▶ Rapau bat metxoi luziekin, koloriak, kontraste haundixeekin.

● **Eta zeuri egin dizuten arraroena?** ▶ Aspaldi, permanente nahiko zoro bat, Bartzelonan. Bestela ere, daukaten ile kixkurrarekin...

● **Lanen bat gustuko ateratzen ez zaizunean?**

▶ Klientiak eskatutakoa lortu arte errepikatu, ni ere gustura egon arte.

● **Burusoil gelditzen ari denari?** ▶ Hereditarioa izaten da askotan, estressa... Zure barrena zaindu eta bitaminak eman.

● **Biserarik jarriko zenioke inori?** ▶ Bai, bai, askori.

● **Zer da modan dagoena?**

▶ Gaur egun oso irekia da. Kolore pankixak berriz datoz, fuertiak.

● **Jendea ausarta da bere ilearekin?** ▶ Gaztetxueri kostatzen jakue. Edade batez gero, melena luzetik rapera, derrepente.

● **Edozertarako prest datorren bati?**

▶ Kontrastiak, baina hainbeste gauza ein leizke... Segun zer material daukazun, pertsonia nolakua dan, bere ilia...

● **Zeuk nahi eta egin ez duzun zerbait?**

▶ Ez daukat antojorik. Normalian nahi doten bezela ibiltzen dot ilea.

MIKEL CORNEJO



UDALEKUETAN GUSTORA IBILTZEN GARA

DOINUA:

Frantses euskaldun bat

Udalekua da guretzako

oporraren hasiera

leku askotan ibiltzen gara

egunaren arabera.

Gauza guztiak ikusi ta

poz-pozik ezagutzera

bi hilabete bait ditugu ta

goazen ongi gozatzer.

Gipuzkoako Eskolarteko XV. Bertsolari Txapelketako bertso irabazlea



AINARA DE PEDRO

OIERKI IGONGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segiduan
konponduko dizugu igongailua

☎ (943) 11 35 15 ● ☎ ABERIAK (943) 11 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

PEDRO PEREZ BERISTAIN

San Roke, 30 behe. ☎ 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEA BERRIATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

Gillermo Garate Urzelai

EAJ/PNVko alkategaia



ADINA: 46

JAIOTERRIA: Elgoibar

IKASKETAK: Batxilergoa

eta arkitekturako zenbait urte

LANBIDEA: Zuzendari komertziala

EGOERA ZIBILA: Ezkondua

ZALETASUN BAT: Kirolak

LIBURU BAT: "El último mohicano"

IDAZLE BAT: Umberto Eco

PELIKULA BAT: "Los 10 mandamientos"

MUSIKA MOTA BAT: Rantxerak eta tex-mex

KOLORE BAT: Urdina

KIROL BAT: Futbola eta txirrindularitza

JANARI BAT: Entsalada

JANTZI BAT: Sport jantziak

USAIN BAT: Larrosarena

■ **Zeri buruz idatziko zenuke liburu bat?** Neure esperientzia pertsonalei buruz.

■ **Estresatua zaudenean zer egiten duzu?**

Kirol asko eta erlajatzeko arnas ariketak.

■ **Lo erraza ala zaila daukazu?** Lo zerraldo egiten dut nik.

■ **Gogora etortzen zaizun zure bizitzako momentu bat?**

Familiarteko uneak, ezkontza eta haurrak izan genituenekoak.

■ **Politika antierotikoa dela diote.** Ez dut uste, eguneroko harreman normaletan denbora kentzen du politikak. Politikoak ez garela erotikoak? Ados nago.

■ **Zer da lehenago, eskubidea ala betebeharra?**

Eskubiderik gabe ez dago betebeharririk.

■ **Besteengan onartzen ez duzuna?** Enbidia, azpijokuan ibiltzea eta jendearen lepotik zurrumurruka aritzea.

■ **Elgoibarko zein txoko erakutsiko zenioke kanpotar bati?**

Eta zein izkutatuko? Bolatokia eta gero, Arostegi. Izkutatu

ezer ere ez. Herri bat herritarrek egiten dute.

■ **Norekin pasako zenituzke gustura berriketan pare bat ordu?** Amarekin, nik baino gehiago hitz egiten du!

■ **Balorerik garrantzitsuena?** Apala, hondratua eta

besteengako arduratsua izatea.

■ **Emakumea bazina, zein lanbide izan nahi zenuke?**

Edozein, edozelako lan egiteko gai direlako gaurko emakumeak, goi karguak adibidez.

■ **Lehen muxua, non eta noiz?** Kotxe batean, 17 urterekin, eta ezpainetan noski!

■ **Txikitan alkate izan nahi al zenuen?**

Ez, txikitan ez genuen sekula horrelakoetan pentsatzen.

■ **Emaiguzu arrazoi bat zuri emateko botua.** Lau urte

hautetako lana hor dagoela, ondo egindako lana dela, eta bide beretik jarraituko dugula.

Gillermo Garate ez da azterketa grafologikoa egiteko prest agertu.



ESKORIATZako MAGISTERIO ESKOLAK

Aukera hauek eskaintzen dizkizu:

- Magisteritzako titulu berriak.
- Hainbat arlo ezagutzea: haur hezkuntza, ingelesa, hezkuntza musikala, teknologia berriak, euskara...
- Esparru ezberdinetan lana egin ahal izateko formakuntza egokia: eskolan, euskalduntze munduan, iharduera soziokulturaletan...

Informazioa

IRAKASLE ESKOLA.

Tel: (943) 71 41 57

ESKORIATZA (Gipuzkoa)

1995-96 IKASTURTERAKO

AURREINKRIPZIO-EPEA

ZABALIK DAGO

HERRI-GAIN
ERRETEGIA
San Pedro auzoa 4
(☎ 74 30 40) ELGOIBAR

PROGRAMEN NONDIK NORAKOAK

ONGIZATEA

	<ul style="list-style-type: none"> Eguneko Zentrua, hirugarren adinari laguntza ematea egunez (janaria, garbiketa...) 	<ul style="list-style-type: none"> Batzorde Arbitrala: kexak erregulatzen dituen organua, hiritarren eta merkatarien artean etab. 	<ul style="list-style-type: none"> Eskola porrotari eta drogomenpekotasunei harreta berezia eskaini herriko taldeekin elkarlanean kanpaina bereziak eginez.
	<ul style="list-style-type: none"> Errotatxoren lanaren errekonozimendua. 	<ul style="list-style-type: none"> Udaletxearen eta Errotatxoren artean lan amakomuna garatu. 	<ul style="list-style-type: none"> Emakumearen saila sortu.
	<ul style="list-style-type: none"> Drogen aurkako planekin eta kanpainekin jarraitu, herri ekimenarekin bat eginez. 	<ul style="list-style-type: none"> Sail honen lana diru laguntzak soilik ematea ez izatea. 	<ul style="list-style-type: none"> Eskaintzen diren zerbitzuak ezagutzera eman eta jendeak kontzientzia hartzea.
	<ul style="list-style-type: none"> Oinarrizko zerbitzu sozialak hobetu kalitatean eta efikazian. 	<ul style="list-style-type: none"> Drogomenpekotasunen programekin lan egin, rehabilitazioa, informazioa eta laguntza eskainiz. 	<ul style="list-style-type: none"> Langabetuentzako lanbide heziketa ikastaroak gehitu.
	<ul style="list-style-type: none"> Etxez-etxeko zerbitzua ezagutzera eman. 	<ul style="list-style-type: none"> Eguneko zentru bat sortu. 	<ul style="list-style-type: none"> Gazteriaren artean drogen prebentziorako kanpainak burutu.
	<ul style="list-style-type: none"> Gehien sufri dezaketen taldeei lehenetsuna eman: lanik gabe eta desegituratutako familiak, droga-zaleak, edadetuak... 	<ul style="list-style-type: none"> Ertzantza eta udaltzaingoaren arteko koordinazioa eta herritarren partaidetzarekin prebentzio, asistentzia eta bergizareratze soziala gauzatu. 	<ul style="list-style-type: none"> Etxez etxeko zerbitzuaren eta poltsikora egokitzen diren erresidentzien bidez edadetuen osasuna eta bizitza kalitatea hobetu.

HIRIGINTZA

	<ul style="list-style-type: none"> Lur industrial eta babes ofizialeko etxebizitzak eraiki biztanle berriak erakartzeko kokapen estrategikoa eta teknologikoa aprobetxatuz. 	<ul style="list-style-type: none"> Azpiegituretan: Urasandiko irteera, kanposantua haunditu, erreka moztu eta Altzolako eta San Migelko errekaak konpondu. 	<ul style="list-style-type: none"> Ingurugiroaren kontrola, mendien bide zaharrak garbitu eta seinalizatu eta sentsibilizazio kanpainak egin.
	<ul style="list-style-type: none"> Etxebizitzak: behar errealek jaso, alokairu merkeak, etxe hutsen jabeen abantailak eskainiz eta etxebizitza sozialak eraiki. 	<ul style="list-style-type: none"> Deba ibaiaren mozketa edo korteari ez. Sigmako industrialdearen garapena Olasokoarekin batera. 	<ul style="list-style-type: none"> Mintxetan denbora pasa esparrua, A. Agirrerren berrantolaketa, IMH eta Ikastolara sarrera, H. Eskolan fallak konpondu.
	<ul style="list-style-type: none"> Babes ofizialeko etxeak eraikitzeko ahaleginak egin. 	<ul style="list-style-type: none"> Errekaren mozketa egin industriarako lurra sortzeko. 	<ul style="list-style-type: none"> Zona desegokitueta ahaleginak egin egokitzapen lanak egiteko, Altzola, Sigma, San Pedroko etxeak...
	<ul style="list-style-type: none"> Etxebizitza sozialak eraikitzeko lurren erosketa finantziatu. 	<ul style="list-style-type: none"> Zenbait auzoren rehabilitazioa (San Pedro, Sigma, Altzola). 	<ul style="list-style-type: none"> Ibilgailuen garbiketarako leku munizipal bat eraiki.
	<ul style="list-style-type: none"> Babes ofizialeko etxebizitzaren eta alkiler munizipaleko programak sustatu. 	<ul style="list-style-type: none"> Aparkaleku publiko gehiago sortu. 	<ul style="list-style-type: none"> Berdegunak sortu.
	<ul style="list-style-type: none"> Etxebizitzaren gaian, lur merke eta ugariaren berplanteamendu munizipala, lurraren birkalifikazioa eta sailkapena arinduz. 	<ul style="list-style-type: none"> Ikasleentzako eta bi milioitik behera irabazten dutenentzako alojerako etxeak eraiki, ekimen pribatuarekin konbenioak bultzatuz. 	<ul style="list-style-type: none"> Jende asko dabilen leku publikoetan segurtasun planak gauzatu: pasatzeko lehenetsunezko semaforo bereziak jarri.

MOTZAK

Hirugarren gerriko beltza Elgoibarko judoan

Ibai Gimnasioko ikasle den Andoitz Agirregomezkortak judoko gerriko beltza 1go dan-a lortu zuen joan den astebukaeran. Getxon izan zen azterketa gainditu ondoren gerriko beltza eskuratzen duen hirugarren elgoibartarra da. Andoitzek 17 urte dauzka eta 7rekin hasi zen judoan.

Futbol Txapelketa

Udal Kirol Zerbitzuak herriko kuadrilei zuzendutako Futbol Txapelketa antolatu du ekainaren 17tik uztailearen 22ra bitartean. Bi txapelketa egongo dira, bata neskena eta bestea mutilena. Zelai erdiko partiduak izango dira, beraz, 8 jokalariko taldeak osatu beharko dira, zazpi jokalarik eta atezaina. Talde bakoitzak 6.000 pta ordaindu beharko ditu izena ematerakoan eta apuntatzen direnen arabera kanporaketa bidez edo liga modura jokatu da txapelketa. Izena emateko goizez Udal Kirol Zerbitzura zuzendu (74 44 15) edo Mintxetara (74 43 15). Mintxetan jokatu dira partiduak, ahal den neurrian astebukaeretan.

Igeriketako emaitzak

Olaizaga Taldeko sei igerilarik Gipuzkoako Txapelketan parte hartu zuten joan den astean Altzan eta Ordiziko igerilekuetan. Aingeru Osoro, Ines Segura eta Joseba Etxeberria 1.981. eta 82. urteetan jaiotakoan kategorian aritu ziren. Haez gain, Judith Ajubitak, Jabier Egeak eta Amaia Revertrek ere hartu zuten parte Judith laugarren geratu zen 400 metro estiloetan, Jabier zortzigarren 100 metro libreetan eta Amaia Revert hamairugarrena 100mtan.



Gorka Merino:

"Tenis pistarik ezean hasi nintzen frontenisean"

■ **Bizkaiko frontenis txapelduna zara.** - Bai, Unibertsitate mailan urtean zehar txapelketa ezberdinak antolatzen dira eta udaberrikoan Bizkaiko txapeldun geratu naiz.

■ **Txapelketa gogorra izan al da?** - Haseran uste nuena baino gehiago. Ez zela maila oso altua izango uste nuen baino gero, txapelketak aurrera egin ahala, maila zuen jendearen aurka jokatu behar izan dut. Ni baino jende nagusiagoa izan dut aurrean, indar eta esperientzia gehiagokoak.

■ **Binakakoan ere txapeldun orde geratu zara.** - Bai, kimika ikasten dagoen lagun bat eta biok binaka jokatu eta bigarren geratu gara.

■ **Nolatan otu zitzaizun Unibertsitateko txapelketan parte hartzea?** - Fisika ikasten nago Leioan, eta kirol mordoan egiteko aukera eskaintzen dute. Kartel batean frontenisean aritzeko aukera zegoela ikusi nuenean izena ematea erabaki nuen.

■ **Maila ona duzula ematen du.** - Bai itxuraz, urte asko eman ditut frontenisean jokatzeko. Txikitik hasi ginen Pilarrean eta Plazan. Astebukaeratan orain Pilarrera joaten gara.

■ **Zer da frontenisa?** - Frontoi batean jokatzeko da, teniseko raketekin eta gomazko pilotarekin. Pilota gomazkoa izatean, oso arina, jokua tenisean baino bizkorragoa da. Erreflejuak



ere bizkorrak izan behar dira. Binakako partiduak nahiko luzeak dira, ordubete edo ordu eta piku. Arau aldetik, pilotan bezala da, eta partiduak 21 tantutara jokatzeko dira.

■ **Squash-aren antzekoa al da?** - Squash-ean errefleju gehiago behar dira, jokua bizkorragoa da, frontenisea korrika gehiago egin behar izaten da eta pilotari gogor eman.

■ **Binaka ala banaka nahiago?** - Espazio librea handia denez, norberak gehiago korritu behar du banaka, nekagarriagoa da.

■ **Tenislari "frustratuak" zaretela esatea...** - Agian izan daiteke. IMHko pista eraiki arte Elgoibarren ez zegoen ganorazko tenis pistarik. Beharrak bultzatuta piska bat bai.

■ **Ez da kirol ezaguna.** - Ez gehiegi, baina gero eta gehiago jokatzeko da. Plazan adibidez, mordoska bat juntatzen gara. Maila dagoela ikusten da batez ere, gaztetxo-arteetan.

■ **Entrenamendu berezirik egiten al duzu?** - Ez, asteburuetan frontenisean aritu. Ikasi ere, gure kabuz ikasten dugu, denborarekin hobetzen saiatzen gara. Kontua gustatzea da.

• Adina: 18
 • Gogoko duzun beste kirol bat? Futbola
 • Partidu bat eta gero, erredukuperatzeko? Lurrean etzaten naiz eta ura edan
 • Zein eskurekin jotzen duzu? Ezkerrarekin

IRAKASLE ELKARTEA

ZEZENBIDE

auto-eskola

San Frantzisko 43,
 ☎ 74 27 20

La Union elkarteak antolatutako plater tiraketa txapelketaren irabazlea Jabier Uzuriaga izan da, San Pedron izan diren lau tiraldietan, guztira, 64 plater apurtu baitzituen. Aurten 20 tira-tzailek hartu du parte, iaz baino zerbait gutxiagok.

SAILKAPENA:

• **Lehen kategorian:**

- 1- Jabier Uzuriaga (64 p.)
- 2- Jose Luis Aizpiri (59 p.)

• **Bigarren kategorian:**

- 1- Jose Azpiazu (63 p.)
- 2- Ramon Agirregomezkorta (63 p.)

• **Hirugarren kategorian:**

- 1- Aurelio Vilarchao (59 p.)

2- Nemesio Rubio (56 p.)

• **Laugarren kategorian:**

- 1- Pedro Martinez (58 p.)
- 2- Jose Maria de la Cruz (52 p.)

Txakurren erakusketa

La Union elkarteak antolatuta, ekainaren 10ean, goizeko 9etatik aurrera, "Trinitate Saria" ehiza txakurren erakusketa burutuko da Albitxuriko zelaian. Txakurraren jabeak parte hartzeko 1.000 pta ordaindu beharko ditu lehen txakurratik eta 800 pta bigarrenagatik. Txakurrak arraza ingelesekoak eta kontinentalekoak dira eta ehizatuko duten hegaz-



■ ■ **Tiro txapelketako irabazleak sari banaketaren ostean.**

tia, galeperra. Irabazleen artean trofeoez gain, dirua ere banatuko da. Izena emateko Garagarza erloju-

dendara (74 01 90) edo La Union elkartera zuzendu 8etatik 9etara bitartean (74 22 38).

KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK • KIROL FLASHAK



Ikastolako 6. mailako

Ikaslevis taldea, eskolarteko Gipuzkoako txapeldun geratu da areto futboleant, joan den larunbateko finalean Xabier Munibe ikastolakoan kontra 2 eta 1 irabazi baitzuten, bi taldeak nahiko antzera aritu arren partiduan zehar. Finalera heldu ahal izateko Ataungo, Eibarko eta Eskoriatzako taldeak kanporatu behar izan dituzte. Hara hona taldea osatzen dutenak: Joseba Galarraga entrenatzailea, Idoia Epelde, Sare Gurrutxaga, Ane Barrenetxea, Oihana Apellaniz, Julia Fernandez eta Oihana Martinez. Makurtuta, Evelyn Santos, Miren Arrieta, Sarai Bilbatua, Mireia Huidobro, Nagore Eskudero eta Ainhoa Gonzalez.

A G E N D A

FUTBOLA Mintxetan **Larunbata 27**

- 12,30: Elgoibar - Urola (Infantilak)
- 16,00: Elgoibar - S.D. Eibar (2. errejionala)

ESKUBALOIA Kiroldegian **Larunbata 27**

- 17,00: Elgoibar - Jauja (Kadete Neskak)

Igandea 28

- 11,00: Elgoibar - Portugalete (Kadete Mutilak)
- 12,30: Elgoibar - Portugalete (Jubenil Mutilak)

FUTBITOA Urasandin **Igandea 28**

LIGA

- 10,00: Karkis - H. Verboten San Roketarrak - D.T. Veterans
- 11,00: Pedruskos - King-Kong Mimox - G. Garcia
- 12,00: Kosakos - Universidad de Chile

KOPAKO SEMIFINALAK

- 13,00: La Maxia - Fotero Tropiko - Lucky Luke

E M A I T Z A K

FUTBOLA

- Haundi 1 - Mondra 2
- M. Bihotza 2 - Elgoibar 2 (2. errejionala)
- Elgoibar 0 - Mondra 0 (Jubenilak)
- Elgoibar 5 - Dunboa 0 (Kadete)
- S. D. Eibar 0 - Elgoibar 0 (Infantilak)

ESKUBALOIA

- Aloñamendi 19 - Elgoibar 24 (Kadete neskek)
- Elgoibar 27- Loiola 20 (Kadete mutilak)
- Elgoibar 30 - Loiola 28 (Jubenil mutilak)
- Txankakua Elgoibar 24 - Basauri 27 (Senior mutilak)

FUTBITOA

- H. Verboten 0 - Mimox 5 Univ. de Chile 5 - Karkis 0
- G. Garcia 1 - Pedruskos 1 King-kong 4 - San Roketarrak 2
- D. T. Veterans 4 - Kosakos 1
- (KOPA) Tropiko 4 - Haritza 2

Markagailu berria jarri dute Kiroldegian

Bi urte eta erdi ondoren aste honetan markagailu digital berria jarri dute Olaizaga Kiroldegiko frontoian Udalaren eta Coca Cola etxearen arteko hitzarmen bati esker. Aurreko markagailuak ez zuen ganoraz funtzionatzen hasera-hasera, zenbakien argiak behin eta berriro izorratzen ziren eta jendearen kezak bultzatuta, azkenean berria jarri dute.

Azken hilabete honetan Coca Cola etxearekin harremanetan egon da Udala eta azkenean edari etxe ezagunak markagailuaren kostuaren erdia eta beste erdia Udalak bere gain hartzea erabaki dute, Mintxetan Coca Colaren 24 metroko publizitatea zenbait denboran jartzearen truke. Mintxetan ezezik, Kiroldegian ere jarri du edari etxe iparramerikarrak bere iragarria, baina txikiago bat. Mar-

kagailuaren zenbatekoa, 450.000 ptakoa da gutxi gora behera.

Markagailuaren ezaugarri dagokienean, Baybor modelokoa da, Kiroldegi gehienetan jartzen den horietakoa. Baloiairen kolpeengandik babesteko, metakrilatozko estalki transparentea jarri zaio, babesgarri modura. Eskubaloi taldekoen eta areto fuboleko taldeez gain, saskibaloi taldeko ekipoek ere erabiltzeko



■ ■ **Markagailua Udalak eta Coca-Colak finantziatu dute.**

moduko markagailua da. Ematen duen informazioa honakoa da: etxekoen eta kanpoen puntuazioa, denbora atzekoz aurrera zein alde-rantziz, partidua zein zatitan dagoen, azken minutua hamarrenekin eta saskibaloian, zein ekipok duen baloia eta zazpi falta pertso-

nal pilotuta duen taldearen indikazioa.

Kokapenari buruz, frontoi buruan jarri ordez, kontrako horman kokatuko da, kontrakantxa deitzen den lekuan. Zenbakien neurria 20x25 zmkkoa da eta 115 metroko distantziatik ikus- teko modukoak dira.

HERRI BATASUNA

Udal abertzale eta ezkertzalea



maiatzak 26 ostirala MITINA Plazan

HIZLARIAK:

Pello Mendizabal (Elgoibarko alkategaia)

Xabino Arrizabalaga (Batzar Nagusietarako hautagaia)

Arratsaldeko 7,30etan

Bi lagun, bi estilo berdin

Roberto Garcia elgoibartarra eta Jose Ignacio Treku debarrak 45 margo dituzte erakusgai Kultur Etxean, azken honek zenbait txapelketa irabazi dituelarik. Bakoitzak 25 bat koadro ditu ikusgai. Gaurregun Deban bizi dira biak, eta bizileku berdina ezezik, beste zerbaitek ere lotzen ditu: antzerako zaletasunak izateak. Pintatzeko estiloa ere nahiko parekoa dute biak. Teknika ezberdinak erabiltzen dituzte obra berean, oleoa, pastela, arraultz-tenperak barniz eta pigmentoekin nahasturik... Teknika ezberdinekin esperimenta-

tzea gustuko duela adierazi digu Roberto Garciak. Gaiak ere antzekoak lantzen dituzte biak; inguruak paisaietan daude isladatuak, San Roke, Deba, Orioko portua,... eta erretratuak ere egiten dituzte. Pinturaz gain, beste zaletasun batzuk konpartitzen dituzte. Arrantza dute gogoko, nahiz eta Jose Ignaciok Robertok baino gehiago arrantzatzen duen. Askok gogoratuko duten bezala, Roberto Garciak Elgoibarko hiru rock taldeetan jo izan du. Lehenengo, bere anaiekin batera Remo taldea osatu zuen, gero Cotton Club-en egon zen, eta azkenik, Koska taldean.



■ ■ Erakusketako egileak. J.I. Treku eta R. Garcia.

EZKERRAREN BOTUA



**Elgoibarrekin
konprometituak**



Lehiaketak

ZUMAIAKO I. BALEIKE KOMIKI LEHIAKETA antolatu du *Baleike* aldizkariak bere lehen urteurrena dela eta. 14 urtetik gorakoek har dezakete parte. Marrazkiak txuri-beltzean eginak izan behar dira, lumaz, errotuloz, pintzelez edo boli-grafoz. Lanak 18x25 zm.ko neurrikoak izan behar dira. Bakarka edo taldean eginiko komikiak aurkeztu daitezke ekainaren 16an bukatzen delarik epea. Zuzenbide honetara bidali behar dira: Foronda Kultur Etxea, 20750 Zumaia.

IMAJINA EZAZU EUSKADI lehiaketaren VII. edizioa antolatu du Central Hispano banketxeak. Margolaritza, argazkigintza, poesia eta ipuin ataletan banatua dago denek gai berbera dutelarik, hain zuzen, berreskuratua edo lortua merezi duen Euskal Herriaren ezaugarrien bat isladatzea. Lanak aurkezteko epea irailaren 30era arte luzatuko da. Argibide gehiago nahi duenak Central Hispanoko edozein egoitzara jo dezake.

Bertsolaritza: Eskolarte



■ ■ Ainar De Pedro txapelduna eta Kepa Mendikute finalista.

Ainara De Pedro, argazkiko 10 urteko neskatu hau, eskolarteko Gipuzkoako Bertsolarien Txapelketa irabazlea da bertso paperetan. Joan den larunbatean Ikastolako 4. mailako 10 lagun Donostiako belodromoan izan ziren eta hauetatik Ainarak finalera iristea lortu zuen eta txapela eskuratu ere bai. "Jende asko zegoen baina ez nengoen oso urduri" esan digu Ainarak. Maialen Lujanbio

bertsolaria du gogokoen "gainera sarixa berak eman zian". Aurrerantzean bertsolaritzarekin jarraitzea nahiko luke "eta datorren urtean Bertso Eskolan apuntatuko naiz".

epa Mendikutek, bestalde, bapateko atalean hartu zuen parte eta finalera iritsi zen 14 urtera arteko mailan. Donostian izan zen finala, maiatzaren 20an, baina elgoibartarrak ez zuen lehen postua eskuratzetik lortu.



**MANUEL
ULIBARRI ZUBIETA**

-Goian bego-
Elgoibarren hil zen
maiatzaren 23an, 81 urte zituela.

*Benetako euskalduna
jatorren kidea
beti erabili duzu
nekezko bidea
zuk ondo bete duzu
euskaldunen legea*



Salerosketak

Txuri beltzeko INPRESORA BAT saltzen dut. Ia berria.
☎ 74 20 95

Atxuri baserrian "COLIE" ARRAZAKO TXAKURKUMEA daude salgai.
☎ 15 04 41

1m x 0,70mko teknigrafoa duen DELINAZIORAKO MAHAI BAT saltzen dut. Prezio interesgarria.
☎ 74 22 29

Bi oheko (1,80m) LOGELA "PUENTE" BAT saltzen dut.
☎ 74 28 29
1,30etatik 2,30etara edo gauzez

KAMINUKO BIZIKLETA BAT salduko nuke. Egoera onean dago.
☎ 74 28 56 Gaizka
Gauzez deitu

Bigarren eskuko MOTO-AITZURRA (moto-azada) EROSIKO NUKE.
☎ 74 22 89

CD ROM IRAKURLEA saltzen dut. Estreinu gabe. SCSI. Hiru abiadura. CD arruntak ere irakurtzen ditu. (SONY CDU 55 S)
☎ 74 15 69

NINTENDO JOKOAK saltzen ditut: "Pro Wrestling serie deportes" eta "KO Boxing".
☎ 74 21 48 Xabier

3,5 pulgadako disketeradun ORDENAGAILU BAT erosiko nuke.
☎ 74 07 30 Unai

ERREPIDE BIZIKLETA BAT saldu nahi dut. "Contini" kuadroa eta "Simano" tresnak ditu. Prezio ona.
☎ 74 00 67 Martin

Etxebizitzak

Etxe bat ALOKAIRUAN hartuko nuke. Amueblatu gabe. Ez du inporta buhardilla bat izatea. Duxa batekin.
☎ (94) 616 65 03 Maria Luisa

APARTAMENTU BAT alokatzen dut Marbellan udako hilabeteetan eta urte osoan zehar ere bai. Hondartza ondoan. Urbanizazio pribatua igerilekuarekin.
☎ 10 36 55

ETXEBIZITZA BAT saltzen dut Urasandi auzoan, behelaldean. 4 gela, 2 bainu, sukalde, sala eta trasteroa. 100 metro karratu. Erreformak eginda.
☎ 74 15 69

ETXE BAT daukat alokatzeko. Guztiz jantzita. Hiru gela, jangela, sukalde eta igogailua.
☎ 74 37 41

Lana

Pertsona nagusi edo gazte elbarrituak ZAINTZEKO, etxeko lanak eta abar EGITEKO prest nago. Esperentzia daukat.
☎ (94) 616 65 03 Maria Luisa

ETXEKO LANAK egiteko prest nago. Egun osoan edo orduka. Gauzez PERTSONA NAGUSIAK zainduko nituzke.
☎ 75 62 57

Mutil gazte amerikarra INGELESEKO KLASEAK emateko prest dago. Mendaron eta baita interesatuen etxeetan ere.
☎ 75 62 13 Alex

Garajeak

GARAJE BAT dut alokatzeko pista beltzaren azpian, Institutu parean. Marraduna.
☎ 74 39 19

GARAJE BAT saltzen dut ANAYAK edifizioan. 15m² eta bi planta.
☎ 74 25 01 / 10 82 43

Agurrak

ZORIONAK JOSUNE FERNANDEZi Olaiaren partez maiatzaren 24an 12 urte egin zituelako. Zorionak Josune!

ZORIONAK JULIA FERNANDEZi maiatzaren 24an 12 urte bete zituelako. Nerearen partez. Zorionak Julia!

Maiatzaren 15ean 16 urte bete zituen AINARA SANCHEZi ZORIONAK bidali nahi dizkiogu bere sendi osoaren partez.

Maiatzaren 23an 10 urte bete dituen XABI PENARANDari ZORION bero bat opari diogu bere adiskideek.

Maiatzaren 27an urteak beteko dituen MAITE IZAGIRREi ZORIONAK familiaren partez eta bereziki Amets, Ander, Asier eta Lurren partez.

MORKAIKO Mendizale Elkarte

osetzen dugun guztiok, eskerrik zintzoenak eman nahi dizkizugu Elgoibarko mendizaletasunaren alde egin duzun guztiagatik. Eta zauden tokian zaudela, ez ahaztu gogoan izango zaitugula.

MORKAIKO M.E.



MANUEL ULIBARRI ZUBIETA

26 OSTIRALA

19,30 HBren MITINA

Hizlariak: Pello Mendizabal alkategaia eta Xabino Arrizabalaga Batzar Nagusietarako hautagaia.
✓ Plaza Handian

19,30 MUSIKESKOLAKO KURTZO BUKAERAKO KONTZERTUA

✓ Herriko Antzokian
Antolatzailea: Inazio Bereziartua Musikeskola

22,15 ZINEA

“Nell”

27 LARUNBATA

19,30-22,15 ZINEA

“Nell”

28 IGANDEA

16,30-19,30-22,15 ZINEA

“Nell”

29 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

“Nell”

30 ASTEARTEA

22,15 ZINEA

“Los hombres siempre mienten”
(Ikuslearen eguna)

1 OSTEGUNA

15,00 ANTZERKIA

OHoko ikasleentzat
Lana: “Behin batean Ju ju ju”
Eibarko J.A. Mogel ikastolakoak
Xabier Ansolaren zuzendaritzapean
✓ Herriko Antzokian

2 OSTIRALA

22,00 GARE IRRATIZALETUEN BILERA

✓ Kultur Etxean

22,30 DANTZA

TRASPASOS taldearen
“Sombrisas” lana
✓ Herriko Antzokian

txandak

FARMAZIAK:

EGUNA	EGUNEZ	GAUEZ
27, larunbata:	Ormazabal	Escala
28, igandea:	Ormazabal	Escala
29, astelehena:	Etxeberria	Zabaleta
30, asteartea:	Etxeberria	Zabaleta
31, asteazkena:	Etxeberria	Zabaleta
1, osteguna:	Etxeberria	Zabaleta
2, ostirala:	Etxeberria	Zabaleta

FARMAZIEN ZUZENBIDEAK:

Zabaleta: Kalebarren 9, Plaentxi
Te. 75 13 84 |

Escala: Recalde 1, Plaentxi
Tel. 75 16 38

OKINDEGIA:

28, igandea: FOTERO

ZINEA



"Nell"


Zuzendaria: Michael Apted
Antzezleak: Jodie Foster, Liam Neeson, Natsha Richardson.

Nell, Carolina del Norteke paraje bakarti eta eder batean erabat isolatua hazi den gazte bat da. Ama ezindua hil berri da eta Nell bakkarririk eta beldurtua sentitzen da. Jerome Lovell doktoreak bere txabolana topatzen du Nell eta psikologoa ezagun batengana eramango du. Medikua eta psikologoa Nell-en hizkuntza ulertezina deskubritzen eta gizartean integratzen saiatuko dira.

Los hombres siempre mienten

Zuzendaria: Antonio Del Real
Antzezleak: Gabino Diego, Beatriz Rico, Anabel Alonso.

Martinek idazle izan nahi du. Letra gizona da Martin, baina idazteko doai handirik gabe. Ikasten dagoen idazle eskolan kalera bidaltzen dutenean zerbait gertatzen da. Auzolaguna nobela idazlea da eta kasualitatez, haren bukatu gabeko azken lana mahai gainean topatzen du. Idazlea oportetan dagoela aprobetxatuz, lanaren zatitxo bat hartzen du literaturako irakasleak eskolan geratzen laga diezaion.



Astelehenean **BARREN** berezia

ELGOIBARKO UDAL HAUTESKUNDEEI BURUZKO
INFORMAZIO GUZTIA LAU ORRIALDEETAN

Erantzukizuna



**Lan egiteko
beste era bat**



sake
KOPERATIBAK

INEKO

NEKAZARI KOOPERATIBA

Udako Eskaintza

NEKAZARI
MANGERA HORIA



50 metro
3.825 pta

19/25

12 litro "PASCOR"
GARASTONTZIA



50 metro
2.610 pta


15/19

**Ekainaren
Setik 30era**

KIRTENDUN 14
PUNTAKO
ESKUAREA



865 pta



- 1- **GUILLERMO GARATE URZELAY**
- 2- Jose Mari Oruesagasti Soraluze
- 3- Isaac Loiola Zabala
- 4- Belen Elorza Arrieta
- 5 - Iñaki Oñederra Ansola
- 6 - Ana Santolaya Gorostiza
- 7 - Gotzon Arrieta Vallejo
- 8 - Cristina Gonzalez Elkoro-Irribere
- 9 - Manu Astray Portos
- 10 - Agurtzane Arriola Agirre
- 11 - Miren Lourdes Arozena Usobiaga
- 12 - Bittori Zabala Fernandez
- 13 - Elisabeth Amesti Bergaretxe
- 14 - Jesus M. Etxeberria Zubiaurre
- 15 - Alberto Iriondo Elustondo
- 16 - Jose Mari Etxeberria Mendizabal
- 17 - Jose Arakistain Arrieta
- 18 - Rosario Andonegi Garcia
- 19 - Jose Antonio Garitagoitia Loiola
- 20 - Jose Zubiaurre Leiaristi

Gaztetasuna eta
Esperientzia
Elgoibartarren Zerbitzura

